



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Eskola bateko jolastokiaren azterketa: hezkidetza bultzatzeko begirada

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Mesa Pérez, Ibon

ZUZENDARIA: Duque Ingunza, Ainara

2020

Eskola bateko jolastokiaren azterketa: hezkidetza bultzatzeko begirada

Ibon Mesa Pérez

UPV/EHU

LABURPENA

Ikerketa honetan, eskola bateko jolastokiaren espazioa eta bertan ematen diren umeen arteko hartu emanak aztertzea izan dugu helburu. Bereziki, Lehen Hezkuntzako ikastetxeko ikasle guztiak izan ditugu aztergai. Lan honek argi adierazten du, bi zikloko mutilek neskek baino espazio gehiago erabiltzen dutela. Era berean, ez dira genero ezberdineko elkar emanak antzeman, kirol ezberdinetan aritu dira. Irakasleak nahiz eta egoeraren jabe izan, ez dute zeregin aktiboa adierazi arazoa konpontzeko. Hori guztia aztertuta proposamen pedagogiko bat egin da jolastokiaren espazioak, materiala, umeen arteko harremanak eta irakasleen jarrera aztertzeko.

Hitz gakoak: Jolastokia; espazioa; harremanak; jarduerak; jarrerak; materialak

RESUMEN

El objetivo de esta investigación ha sido analizar el espacio del patio de una escuela y las tomas entre los niños que se dan en él. En particular, hemos analizado a todos los alumnos del centro de Educación Primaria. Este trabajo demuestra que los chicos de dos ciclos utilizan más espacio que las chicas. Así mismo, no se han detectado intercambios de género, sino que se han practicado diferentes deportes. A pesar de que el profesorado es propietario de la situación, no han indicado un papel activo en la resolución del problema. De todo ello se ha realizado una propuesta pedagógica para analizar los espacios del patio, el material, las relaciones entre los niños y la actitud del profesorado.

Palabras clave: Patio; espacio; relaciones; actividades; actitudes; materiales

ABSTRACT

The aim of this research was to analyze the space of a school's courtyard and the shots among the children given in it. In particular, we have analyzed all the students of the Primary Education Center. This work shows that two-cycle boys use more space than girls. Likewise, no gender exchanges have been detected, but different sports have been practiced. Although the faculty owns the situation, they have not indicated an active role in the resolution of the problem.

Keywords: Playground; space; relationships; activities; attitudes; materials

AURKIBIDEA

1.	Sarrera eta justifikazioa	4
2.	Esparru teorikoa eta kontzeptuala	5
2.1.	Hezkidetza.....	5
2.1.1	Hezkidetzaren ezaugarriak	6
2.2.	Eskolaren egitura eta antolaketa	7
2.2.1.	Naturaren garrantzia	8
2.3.	Eskolako patioa	10
2.3.1.	Nesken eta mutilen beharrak espazioan.....	11
2.3.2.	Patioaren egitura	12
2.3.3.	Helduaren rola patio orduetan.....	14
3.	Helburuak	15
4.	Metodologia	15
4.1.	Lagina.....	16
4.2.	Ikerketa lanaren instrumentuak.....	16
4.3.	Prozedura.....	16
5.	Emaizak	17
5.1.	Umeen arteko harremanak	18
5.2.	Eskolako patioan sortzen diren gatazkak	18
5.3.	Umeez espazioarekin duten erlazioa	19
5.4.	Umeez materialarekin duten erlazioa	20
6.	Ondorioak	35
7.	Hobekuntza proposamena.....	37
8.	Bibliografia	43
9.	Eranskinak.....	48

1. Sarrera eta justifikazioa

Gaur egun, gure gizartea etengabe aldatzen ari da, hots, askotarikoak dira urte hauetan agerian dauden errealitateak (globalizazioa, migrazioa, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna...); eta horiek hezkuntzan eragin zuzena izango dute. Esate baterako, Lehen Hezkuntzan umeen arteko gatazkak nabariak izaten hasten dira eta neska zein mutilen arteko desorekak antzematen hasten dira. Hau da, komunikabideetan, familia-eremuan eta, orokorrean egunerokotasunean, bereganatutako estereotipoak azaleratzen hasten dira; haien artean dituzten harremanetan.

Horren harira, Heziberri 2020 planean adierazten denez, hezkuntza-sistemek erantzun malguak diseinatu behar dituzte egoera desberdinei erantzuteko eta inklusioa bermatzeko. Hori guztia kontuan hartuta, kasu honetan, umeen arteko berdintasuna sustatzea izango da helburua.

Hortaz, ikerketa honen asmoa, gaur egun ikastetxe baten eskola patioaren inguruan dagoen egoera aztertzea izango da eta ondoren, espazio honi eman behar den garrantzia baloratzea izango da. Horretaz gain, Lehen Hezkuntzan arazo honen trataera nolakoa izan behar den eta zer nolako garrantzia ematen dioten ezagutzea interesgarria izango da.

Horretarako, lanaren hasieran, eskola patioaren inguruko hurbilketa teoriko bat egiten da; hain zuzen ere, definizioa, egitura, antolaketa, neska eta mutilen beharra eta helduaren rola nolakoa den azalduz eta eskolan, Lehen Hezkuntzan bereziki, bizitzen duten egoera azpimarratuz.

Horren ondoren, lanaren abiapuntu izan diren helburuak zehaztuko dira. Horren hariari jarraituz, metodologian eta lanaren garapenean ikerketa lana burutzeko jarraitutako prozesua adierazten da.

Jarraian, ikerketa lana nola burutu den garatzen da. Hain zuzen ere, Eskola patioari buruzko ezaugarriak, umeen arteko harremanak, gatazkak eta espazioarekin eta materialarekin duten erlazioa jasotzen dituzten taula batzuk erabili dira, Lehen hezkuntzako ikasleak behatzeko.

Azkenik, taulan lortutako emaitzak agertu egiten dira, horien jarraian, emaitzen interpretazioa eginez, ikerketa lanaren ondorioak islatuz. Hain zuzen ere, emaitzetan jasotakoa adituek diotenarekin alderatuz.

Horrenbestez, etorkizunera begira, jolastokiaren egoera hau hobetu nahian, eskoletan jolastokiaren egituraren erreforma egitea ezinbestekoa izango da, espazioaren erabilera, harremanak eta ikasleen elkar-emanak konpontzeko.

2. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

2.1. Hezkidetzak

Hezkidetzak gaur egun indarra hartzen ari den kontzeptu oso garrantzitsua da. Izan ere, gure gizartean oraindik gizon eta emakumeen arteko desberdintasun ugari nabarmentzen dira eta horrek eskoletan ere eragina izaten du. Reizabalek (2015) aipatzen duen moduan, hezkidetzak emakumeen eta gizonen arteko eskubideen, aukeren, betebeharren, lanaren... berdintasuna helburu duen hezkuntza-eredua da. Horrela bada, gure gizarteko eskoletan hori lortzea ezinbestekoa da; Hain zuzen ere, agerian ditugun desberdintasunak berdintasunak bilakatzea gure helburua izan behar da. Horrekin bat, Barquínek (2015) azpimarratzen duenez, etiketarik gabeko mundua eraikitzea beharrezkoa da, emakumeak eta gizonak maila berean egoteko eskubide eta askatasun berdinekin.

Aurretik aipatu den moduan aurreko ezaugarriak eskoletan aplikatzea ezinbestekoa izango da. Hortaz, Eusko Jaurlaritzak (2019) bere hezkidetzak planean hezkidetzak eskolan bultzatzeko helburu nagusi batzuk aipatzen ditu:

1. Hezkuntzaren arloan lantzen den araudiak berdintasuneko eta hezkidetzako mandatuak beteko dituela bermatzen jarraitzea.
2. Emakumeen jakituria eta ekarpen sozial eta historikoa diziplina guztietan txertatzea.
3. Irudien eta hizkuntzaren erabilera inklusiboa egitea, bi sexuen irudi plurala bermatuko duena, genero-rolak eta -estereotipoak alde batera utzita.
4. Orientazio akademiko-profesional ez-sexista bermatzea.
5. Berdintasuna sartzea ezkutuko curriculumean eta ageriko curriculumean.
6. Aniztasunaren molde guztiak txertatzea.
7. Baliabideen eta espazioen erabilera bidezkoa sustatzea.
8. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta tratu ona sustatzea.

2.1.1 Hezkidetzaren ezaugarriak

Eusko Jaurlaritzak proposatzen dituen helburu horiek bermatzeko eskolak hezkidetzaren bultzatzeko hainbat ezaugarri kontuan izatea beharrezkoa du. Hauek dira Eusko Jaurlaritzak (2019) aipatzen dituenak:

1. **Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean:** ikasgelan berdintasuna lantzeko oinarria da. Genero-ikuspegia modu kritikoan lantzea ezinbestekoa da.
2. **Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista:** hizkuntzaren erabilera ez-sexista ez da, soil-soilik, genero maskulinoa eta femeninoa erabiltzea; generoarengatik bereizketa egiten ez duten hizkuntzei ere eragiten die.
3. **Emakumeen jakituriaren integrazioa eta haien ekarpen soziala eta historikoa** lantzea.
4. **Gatazken eraldaketa baketsua, hezkidetzako elkarbizitzarako proiektuen bidez:** elkarbizitzan genero-ikuspegia aplikatzea oinarrizkoa da indarkeria sexistari aurre hartzeko; horretarako errespetuan eta berdintasunezko harremanetan oinarritutako elkarbizitza behar du izan.
5. **Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa:** hezkidetzak oreka lortu nahi du, etxeko eremuan eta eremu publiko eta okupazionalan.
6. **Espazioak ikastetxean, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak:**

Ikastetxeetako espazioak, jolas-orduetakoak bereziki, mutilek hartu ohi izan dituzte lehiaketa-jolasetan aritzeko. Gainera, espazio hori bera asko bereizten da mutil eta neska taldeetan, eta bi talde horiek ez diote elkarri asko eragiten.

Ikastetxeak ari dira eremu hori lantzen, eta badaude ikastetxeetako jolastokietan arrakasta izan duten proiektuak: bertako jarduerak eta espazioaren banaketa harreman berdinzaleagoak eta erabilera bidezkoagoa bultzatzeko diseinatu dira. Hala ere, beharrezkoa da hezkidetzako espazioak errazteko estrategiak ezartzen jarraitzea.
7. **Berdintasunezko hezkuntza afektiboa eta sexuala:** hezkuntza sexualak, osasun eta garapen pertsonal gisa, helburu du pertsonalki haztea eta sexuarekiko jarrera baikor eta arduratsua izatea; hartara, arduraz jokatzeko laguntzen du, ez norberarekin soilik, inguruan duen testuinguru sozialeko beste pertsonekin ere.
8. **Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan esku hartzea**

2.2. Eskolaren egitura eta antolaketa

Eskolaren egitura eta antolaketari behar den garrantzia ematea ezinbestekoa da. Hernaniko Udaletxeko Berdintasun Sailak (2005) aipatzen duen moduan, espazioa, mugak dituen eremu fisikoa da. Era berean, autore honek ere, dioten bezala espazioak barruan dagoena ere baldintzatzen du, hala nola, pertsonen nortasuna, pertsonen jokaera eta jarrera, espazio horren barnean egiten diren ekintzak eta ekintza horien esanahia. Horren arabera, Hernaniko Udaletxeko Berdintasun Sailak (2005) azpimarratzen duenez, espazioaren erabilera baloratzeko orduan, espazioaren zabalera, kalitatea eta espazioari dagokion ekintzak eta jarrerak kontuan izatea beharrezkoa da.

Horren haritik, espazioak behatzeko dagoen garrantzia agerian geratzen da. Hain zuzen ere, espazioaren antolaketak bertan dauden pertsonen jarreretan eragina izango du, hots, neska eta mutilen arteko harremanetan. Horren aurrean, eskolak antolaketa horretan zeregin garrantzitsua bete beharko du berdintasuna bermatzeko. Hortaz, Hernaniko Udaletxeko Berdintasun Sailak (2005) proposamen batzuk bultzatzen ditu nesken eta mutilen artean espazioaren erabilera berdintsuagoa izateko. Hona hemen proposamen horiek:

- Espazioa zenbait genero-estereotipoekin bat ez datorren moduan erabiltzea.
- Nesken eta mutilen arteko elkarrekintza-mota aldatzea.
- Neskak kanpoko espazioak erabiltzera animatu, baita ariketa fisiko gehiago egitera ere, beren gustukoak diren jarduerak bultzatuz. Ideia honekin Alvarazek (2013) bat egiten du. Hots, bere esanetan, kanpoko espazioak ahal diren beste erabili behar dira.
- Espazioaren erabilera baldintzatzen dituzten hierarkiak apurtzea.
- Mutilentzako kirol –eta lehia- jokoen aurrean aukerak ematea. Alde batetik, mutilek burutzen dituzten ekintza fisikoak indarra eta lehia eskatzen duten kirolek mugatzen dira. Bestalde, burutzen dituzten kirolak nahiz jokoak, gehiegizko lehiakortasuna dute, hezkidetza, zainketa eta sentsibilitatea bezalako baloreekin bat ez datozenak. Honekin batera, Herrerok (2013) dioten bezala, jolasa eskoletan gertatzen dena aztertzeko, hausnartzeko eta behatzeko tresna baliagarria da. Hortaz, espazioak malguak eta neska zein mutilentzako integratzaileak izan behar dira

- Espazio mota gehiago eskaintzea, jarduera-mota gehiago egiteko edo espazioen erabilera-motak ere ugaritzeko. Jolastokia kirol ekintzak burutzeko espazioz osatuta dago. Honekin lotuta, Pinok eta Gimenezek (2015) eskolako patioak bertan behera burutu daitezkeen jolasen eskaintza zabala eskaini behar du, normalean burutzen diren jolasen aukera moduan.
- Espazioak erraz aldatzeko bitartekoak ipintzea. Jolastokiaren espazioaren diseinua oso zehatza izaten da, beraz, espazioaren eraldaketa erraztu beharko litzateke, behar ezberdinetara moldatu ahal izateko.
(Hernaniko Udaletxeko Berdintasun Saila, 2005: 5)

2.2.1. Naturaren garrantzia

Baldintza guzti horiek kontuan hartuta eskolako egituran natura kontuan hartzea beharrezkoa izango da. Hots, ez da alde batera utzi behar, haurren hazkuntzan onura asko dakartzalako. Beraz, ezinbestekoa izango da, naturak haurrari eskaintzen dizkion onura horiek ezagutzea, eskola patioen ikerketarako zeresan handia izango dutelako. Hortaz, hona hemen haurrak naturarekin harremanetan egotearen aspektu positibo batzuk:

- Garapen kognitiboa

Ingurune naturalean modu seguruan mugitzeko, kontzentrazio-ahalmen handia behar da, eta hori, era berean, berez garatzen da. Haurren jakin mina eta kontzentrazio-gaitasuna nabarmen hobetzen da naturarekin kontaktuan daudenean; gainera, efektu positiboak denboran irauten du (Grahn, Martensson, Lindblad, Nilsson eta Ekman (1997) eta O´Brien eta Murray (2006).

- Sormena

Autore honek, hala nola, Bruchnerek (2017) aipatzen duen bezala, aire zabalaren oinarritzko ezaugarrietariko bat jostailu aurrefabrikaturik ez erabiltzea da. Haurrek jolas-objektuak sortzen dituzte egituratu gabeko materialen oinarrietatik abiatuta, hau da, naturan aurkitzen duten guztia abiapuntu hartuta: zuhaitzak, harriak, makilak, fruituak, enborrak eta abar. Zenbait ikerketek frogatzen dutenez, naturan jolasten daudenean, haurrek beren fantasia elikatzen dute eta irudimena askatzen dute.

- Hizkuntza garapena

Aurreko ideiekin bat eginez, Häfnerek (2002); Grahnek, Martenssonek, Lindblade, Nilssonek eta Ekmanek (1997) eta Dymmentek eta Bellek (2008) aipatzen duten moduan, sormena estimulatzen duten baldintza berberak ere eragin positiboa dute haurren hizkuntza-garapenean. Gainera, haurrek haien jarduerak sortzeko daukaten askatasun eta autonomiaren bidez, efektu hori biderkatzea lortzen da. Heidelberg-eko Unibertsitateko Peter Häfner (2002) ondorio honetara iritsi zen: Lehen Hezkuntzako lehen mailan, aire zabalean egoteko aukera duten haur-eskola batetik datozen haurrek arreta handiagoa jartzen dute ikasgelan, modu zehatzagoan adierazten dira, beren iritzia hobeto argudiatzen dute eta etxean eginbeharrak egiteko orduan independenteagoak dira.

- Laguntasuna

Hain zuzen ere, Bruchnerek (2017) adierazten duenez, horrekin zuzenean lotuta, kanpoan egoteak lankideekiko erantzukizunaren eta begirunearen garapena bultzatzen du. Ingurune naturalean murgilduta egoteak lagundu egiten du haurren kontzientzia pizten, beraz, naturan murgiltzea besteenganako errespetua eta erantzukizuna areagotzen du.

- Garapen fisikoa eta psikomotorea

Gainera, Gorgesek (2000); Lettierik (2004); Kienerek (2003); Fjortoftek (2000) eta Kienerek eta Stuckik (2001) aipatzen duten moduan, garapen fisikoa eta psikomotrizitateari dagokionez, eremu malkartsu eta heterogeneoetan jarduerak egiteak muskulatura indartu eta gorputzaren gaineko kontrola areagotzen du. Naturan edo natur inguruneetan jolasteak, naturalizatutako patioetan hain zuzen, oreka eta propiozepzioa hobetzen ditu. Hortaz, egoera horietan, haurrek estimulu-jasa jasotzen dute, garunak etengabe prozesatzen duena. Zenbait ikerketek garapen psikomotorrean eta, batez ere, motrizitate lodian ondorio positiboak erakusten dituzte.

- Osasuna

Horretaz gain, Estudio ALADINok (2015); Instituto Nacional de Estadisticak (INE); Martinek (2003) eta Grahnek (1997) aipatzen dute, naturak haurren osasunean duen garrantzia azpimarratzekoa dela. Hau da, naturarekiko kontaktu erregularrak sistema

immunologikoa indartzen du eta gaixotasun infekziosoak izateko joera murrizten du. Eguzki-argiaren eraginpean egoteak D bitaminaren ekoizpena bultzatzen du, eta, aldi berean, sistema immunitarioa indartzen du. Gainera, aire librean agente patogenoekiko esposizioa txikiagoa denez, kutsatzeko aukerak gutxitu egiten dira. Hots, ingurune naturalizatu batean murgildutako haur-eskoletara joaten direnek urtean %5 egun gutxiago falta dira gaixotasunagatik.

Alderdi positibo horiek kontuan hartuta, baso-eskola bateko esperientzia baten datuek aurkezten dutenez naturaren garrantzia umeen heziketan ezinbestekoa da. Hain zuzen ere, Bruchnerek (2017) dioten bezala, aire zabalean hezten duten eskolek denentzako espazio eta material nahikoak dituzte. Gainera, irakasle bakoitzeko ikasle ratioa eskola arrunt batean baino txikiagoa izaten da; eta horrek lan-giro atsegina eta lasaia sortzen du. Taldearekin gatazkaren bat sortzen denean, irakasleak bitartekari gisa parte hartzen du, eta, enpatia erakutsiz, haurari laguntzen dio erabakitzen zer den garrantzitsuena taldearentzat, bere mugak zein besteenak aurkitzen. Horrela, haurrak beren beharrez jabetzen dira horiek asetzeko, eta, aldi berean, autoestimua eta beren buruarekiko konfiantza handitzen dituzte.

Espazioaren xehetasun horiek kontuan izanda, ezinbestekoa izango da eskolako patioen ezaugarrietan zentratzea.

2.3. Eskolako patioa

Autore honek, hala nola, Jarretek (2002) definitzen duen bezala, jolastordua eraikinetik kanpo duten aisialdirako denbora-tarte bat da, non ikasle bakoitzak espontaneoki gustuko dituzten ekintzak burutzen dituzten. Hortaz, Jarretek eta Waite-Stupianskyk (2009) dioten moduan, jolastordua umeen eskubidea da eta ez pribilegio bat. Ideia horri, Álvarezek (2013) gehitzen dio jolastordua ez dela sari bat bezala ikusi behar; baizik eta hezkuntza jarduera garrantzitsu bat, ume guztiak burutu behar dutena. Honekin jarraituz, Picak (d.g.) 7 arrazoi ematen ditu neska eta mutilek jolastordua beharrezkoa dutela adierazteko:

1. Ume guztiak atsedenera etekina ateratzen diote.
2. Jolastorduak zereginari eskainitako denbora handitzen du.
3. Umeek kanpoko argia beharrezkoa dute.
4. Jolas ez egituratuak estresa txikiagotzen du.
5. Umeek izaki sozialak izaten ikasi behar dute.

6. Umeen osasuna arriskuan dago obesitateagatik. Kanpoan egoteak jarduera fisiko berriak egitea ahalbidetzen du, eta horrek kaloriak erretzen eta mugimenduaren alaitasuna bizitzen laguntzen du.
7. Jarduera fisikoak garuna elikatzen du.

Hori dela eta, jolastorduen ezaugarriek umearen nortasunean eta jokatzeko eran eragin zuzena izango dute. Hots, Aguilera (2010) azpimarratzen duenez, ume guztiek eskolako patioan libre sentitzean haien jarrera modu espontaneoan eta naturalean adieraziko dute. Are gehiago, Alvarez (2013) dioenez patioak jolas ez-egituratua burutzeko eta jarduera fisikoan parte hartzeko aukera ematen du.

El recreo puede concebirse como un espacio que permite el desarrollo integral de los niños y las niñas, pues no solamente implica el movimiento y la actividad física, sino que contribuye al desarrollo del lenguaje emocional, cognitivo y social. Todas estas bondades deben ser tomadas en cuenta por el personal docente, con el fin de propiciar espacios de recreo sanos, seguros y adecuados para la población infantil. (Álvarez, 2013: 71.)

Gainera, Herrero (2013) honako hau gehitzen dio aurretik aipatutako ideari: “Los espacios de recreo son algo más que un lugar para el juego, tienen que ser espacios saludables con un papel fundamental para avanzar hacia una escuela coeducadora, solidaria y sostenible”. Hortaz, eskolako patioa hezkidetzaren bultzateko oinarri garrantzitsua bilakatzen da. Horrekin bat eginez, Pinok eta Gimenez (2015) aipatzen duten moduan, jolastorduak umearen garapen integrala bere osotasunean ahalbidetzen du; izan ere, ez du soilik mugimendua eta jarduera fisikoa barne hartzen, baizik eta subjektua gainerako kideekin harremanetan jartzen du bere sozializazioa bultzatzen. Hori dela eta, jolastorduak neska eta mutilen arteko elkarrekintza bultzatuko du era negatiboan edo positiboan, espazioaren antolakuntzaren arabera. Horretarako, ezinbestekoa izango da egiturak helduen etengabeko berrikusketa izatea; geroago zehatzago azalduko den moduan.

2.3.1. Nesken eta mutilen beharrak espazioan

Aurreko ideiekin bat eginez, Geertzek (1992); Martínezek eta García (1997); Cantók eta Ruizek (2005) eta Rodríguezek, Retortillok eta García (2007) aipatzen duten moduan, helduaren parte hartzeak garrantzi handia du, hain zuzen ere, helduak parte

hartzen ez badu mutilek espazio zabalagoak erabiliko dituzte kirolekin zerikusia duten jolasak burutzeko.

Hain zuzen ere, Navarrok eta Mongek (2009) adierazten dutenez, nesken jolasak kontrol eta espazio txikiagoak izan ohi dituzte, adibidez, soka saltoa, dantza, baloia paretaren aurka botatzea, etab. Bestetik, mutilek, arestian aipatu den moduan, espazio zabalagoak behar dituzte, hau da, lehiakortasun gehiago duten jolasak. Adibidez, uztailarekin korrika egitea, futbola, etab.

Aldez aurretik aipatu diren ideiak kontuan hartuta, jolasek mutilengan lehiakortasun gehiago eragiten dutela adierazi daiteke. Hots, Navarrok eta Mongek (2009) eta Hernaniko Udaletxeko Berdintasun Sailak (2005) azpimarratzen duten bezala, neskek bigarren mailako papera barneratuko dute, hau da, jarduera gabeko edo konplexutasun gabeko ekintzak burutu gabe. Are gehiago, autore hauek dioten moduan, neskek jolastokiko espazioetan sartzen saiatzen dira, baina, pixkanaka, interesa izateari uzten diote mutilen partetik arreta handirik jasotzen ez dutelako edo nahita arbuiazen dituztelako; hortaz, neskek jolastokiko eremu marjinalak okupatzen dituzte.

Aditu hauen ideiak kontuan hartuta argi dago, espazioaren erabileran eta beharretan desberdintasunak nabari direla neska eta mutilen artean. Horrekin bat eginez, Hernaniko Udaletxeko berdintasun sailak (2005) adierazten duen moduan, nabariak dira, jolastokiaren eremu eta erabileran neska eta mutilen arteko desberdintasunak. Ondorioz, autore honen arabera, espazio bakoitzean burutzen diren aktibitateak, modu desberdinean baloratuak dira. Mutilek, alde batetik, jolastokian egoteko denbora sozialki baloratuak diren ekintzetan ematen dute (adibidez kirolean, futbolean, zehazki). Bestalde, neskek, jolastokiko leku desberdinetan ematen dute, baina, hain baloratuta ez dauden ekintzetan, hain zuzen ere, denbora-pasa edo entretenimenduan (goma-saltoan, kromotan jolasean, dantzan, patinatze, hitz egiten...).

2.3.2. Patioaren egitura

Neska eta mutilen jolaserako joera desberdin horiek kontuan hartuta, ezinbestekoa da beraz, jolastokiak izan behar duen egitura zehaztea; umeen arteko harremanak eta jolas kooperatiboak bultzatzeko helburuarekin.

El juego es una herramienta muy útil para analizar, reflexionar y observar lo que ocurre cada día en los centros educativos, por ello los espacios deben ser espacios flexibles e integradores entre los niños y niñas,

teniendo en cuenta sus gustos y el uso que estos hacen de los mismos.
Deben tenerse en cuenta criterios de sostenibilidad y participación.
(Herrero, 2013: 2)

Idea horretara gehituz, Alvarezek (2013) adierazten duenez, jolaserako espazioek egokiak eta seguruak izan behar dute, eta ikasleak fisikoki aktiboak izatea ahalbidetu behar dute.

Aurrekoari dagokionez, beharrezkoa da, haurrek jolas-orduan gozatzeko egokiak diren espazio fisikoak (azpiegiturakoak) izateaz gain, eskola-umeek gustuko dituzten jarduerak egiteko materialak eta jolasak izatea; esate baterako, motrizitate lodia eta mugimendua garatzeko materialak.

Gainera, Strattonen (2000) dioenez, eskola-patioetan lerro desberdinak margoztuta egoteak ikasleen jarduera fisikoa areagotzen duela. Horren arabera, ezinbestekoa izango da patioaren eremu desberdinak ondo banatuta eta antolatuta egotea. Horretarako, Alvarezek (2013), bere lanean, patioak bete behar dituen ezaugarri batzuk zerrendatzen ditu:

- Eskolan dauden haur guztiek gutxienez 20 minutuko etenaldi bat egin beharko dute egunero.
- Jolas-orduak egiteko irakasle-taldea egokia eta ingurua segurua izan behar da, ikasleek jarduera fisiko atseginean parte har dezaten.
- Hezitzaileek jolasaldian trebetasun sozialen garapena bultzatu behar dute, adibidez: lankidetzeta eta gatazken konponbidea.
- Segurtasun arauak kontuan hartu behar dira jolastorduan.
- Kalifikatutako helduek ongi gainbegiratuko dute jolasa.
- Jazarpena edo jokabide oldarkorra ez dira onartu behar patioetan edo jolastorduetan.
- Helduek esku hartu behar dute haur baten segurtasun fisiko edo emozionala arriskuan dagoenean.
- Jolastordua ez da programatu behar Gorputz Hezkuntzako klasearen aurretik edo ondoren.
- Jolastorduak ez du eraginik izan behar Gorputz Hezkuntzako klaseekin, horiek espazio edo ingurune batean gertatzen ari baitira, amankomunean.

Hortaz, argi dago patioaren egitura hutsak ez duela zentzurik. Hau da, irakasle-taldeak aukeratzen dituen espazio-eremu guztiak ondo antolatuta egon behar dira, gaur garrantzi handia hartzen ari den hezkidetza ere bermatu ahal izateko. Herrerok (2013) ideia horrekin bat egiten du; hain zuzen ere, bere esanetan, patioen irudia ikasteko eremu bezala, hezkuntza-espazio osasungarriei lotuta egon behar da. Hain zuzen ere, espazio hauen antolaketa ingurumen-hezkuntzako eta balioetan oinarritutako hezkuntzako programetako irakasleen prestakuntza-ikastaroetatik sortzen dira; horien artean, hezkidetza programetatik.

Hala ere, patioaren egitura ez da soilik irakasle-taldearen iritzietatik eraiki behar, baizik eta, ikasleen ikuspuntuak eta ideiak jasotzea ezinbestekoa izango da; haiek baitira espazio horiek erabiliko dituzten subjekturik garrantzitsuenak. Hots, Alvarezek (2013) eta Pinok eta Gimenezek (2015) azpimarratzen duten moduan, hurrei jolastorduan zer egitea gustatzen zaien ikertzea eta haien interesetara moldatzea beharrezkoa da. Hau da, Alvarezek (2013) justifikatzen duenez, jolasaldian hainbat jarduera eta joko egiten dira; jolas tradizionalak, mahai-jokoak, mugimendu-jokoak, errondak, besteak beste. Horregatik, funtsezkoa da espazioak irekitzea ikasleei entzuteko eta irakaslea bere hezkuntza-errealitatearen ikertzaile bihurtzeko. Are gehiago, jarrera sozialak sustatzen dira, hala nola hezkidetza, lankidetzak, erantzukizuna, autonomia, taldeko gatazkak konpontzea eta materiala errespetatzea eskatzen duten jardueren bidez (Pino eta Gimenez, 2015).

2.3.3. Helduaren rola patio orduetan

Aurreko ideiekin bat eginez, Álvarezek (2013) eta Herrerok (2013) aipatzen duten moduan, helduaren parte hartzeak patioetan garrantzia handia du. Izan ere, irakasleak hezkuntza prozesuaren dinamizatzaileak dira, hortaz, beharrezkoa da helduen, irakasleen, hezkuntza-administratzaileen eta hezkuntza-komunitateetako gainerako langileen (zaintzaileak, atezainak, idazkariak, etab.) rolari arreta jartzea. Horrekin bat eginez, Alvarezek (2013) dioenez, irakasleek jolas-orduak gainbegiratu eta zaindu behar dituzte. Horren arabera, autore honek irakasleak ikasleengana gehiago hurbiltzea, haiekin denbora partekatzea, gozatzea eta jolastea gomendatzen du.

Hori guztia erregulatu ahal izateko, garrantzitsua da irakasle taldeak elkarriketarako espazioak bilatzea, eskolako jolasen gaia lantzeko, haurren aisialdiaren inguruko beharrak, interesak eta eskaerak aztertu ahal izateko. Horrela, eskola adinean dauden

haurren ezaugarri, interes eta beharrei erantzungo zaie eta, aldi berean, hezkuntza prozesuen kalitateari lagunduko zaio (Álvarez, 2013).

3. Helburuak

Oro har, aurreko guztia kontuan hartuta, lanaren helburu orokorrak, alde batetik, eskola bateko jolastokiaren espazioa eta bertan ematen diren umeen arteko hartu-emanak aztertzea eta bestetik, berdintasuna eta naturaren zaintza sustatzea izango dira. Baina, jarraian, kontuan hartuko diren helburu zehatzak zerrendatuko dira.

Lehenengo helburu orokorra kontuan hartuta, hauek izango dira kontuan hartuko diren helburu zehatzak:

- Eskolako espazio desberdinak behatzea.
- Espazioaren erabilerak umeen jarreran duen eragina ikertzea.
- Erabiltzen diren materialak ezagutzea.
- Umeen arteko harremanak aztertzea.
- Espazioak neska eta mutilen ekintzetan duen eragina behatzea.

Bigarren helburu orokorra kontuan izanda, honako hauek izango dira kontuan hartuko diren helburu zehatzak:

- Umeen arteko hartu-eman orekatuak emateko bideak topatzea.
- Jolastoki esanguratsua eta umeen esplorazioan oinarritutako espazioa bermatzea.
- Irakasleen arteko koordinazioa eta lankidetzak sustatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria egoerei azkar eta eraginkortasunez erantzutea.
- Emakumeen eta gizonezkoen berdintasuna sustatzea.

4. Metodologia

Helburu horiek bermatzeko lanaren metodologia azaltzea ezinbestekoa izango da, lanaren nondik norakoak ezagutzeko. Hortaz, GrAL hau burutu ahal izateko, ikerketa lan bat egitea aukeratu da. Horretarako, lehenik eta behin, hezkidetzak eta eskola patioen inguruko bilaketa bibliografiko sakon bat aurrera eraman izan da, zenbait ezaugarri eta jokabide ulertu ahal izateko eta baita, ikerketa ahalik eta zentzuzkoena izateko ere. Horren ostean, eskola patioei buruzko ikerketa zehatz bat burutu da. Hala nola, ikastetxe konkretu baten jolastokiko espazioak behatu dira umeen arteko harremanak eta espazio horien erabilera aztertzeko; behaketa taula baten bitartez (Eranskina 9.2)

Azkenik, taula horrekin bildutako datuak, geroago azaltzen den bezala kategoriatan sistema batekin sailkatuko dira, gai horren inguruan emaitzak eta ondorioak ateratu izateko.

4.1. Lagina

Ikerketa Bizkaiko meatzaldean kokatutako eskola txiki batean burutuko da. Ikerketa lan honetako parte-hartzaileak Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak izan dira; hala nola, maila bakoitzeko gela bat. Aipatu beharra dago, ikasle guztiak batera ateratzen direla jolastokira ordu berean (11:00etatik 11:30etara).

Lagina kontutan hartuta, garrantzitsua izango da aipatzea %42,48 mutilak direla eta %57,52 neska, 6 urtetatik 12 urtera bitartean.

4.2. Ikerketa lanaren instrumentuak

Aurreko metodologiari erreparatu, ikusi daiteke erabilitako tresnarik garrantzitsuen behaketa sistematikoa izan dela. Horretarako, aurretik esan bezala, behaketa-taula bat erabili da. Horretaz gain, datuak jasotzeko datu base bat sortu da, jasotako informazio guztia ordenatzeko eta alderatzeko.

Esan beharra dago behaketa taula honen helburua, ikastetxe tradizional batean espazioaren antolamendua umeen jarreran eta haien arteko harremanetan duen eragina islatzea izan da. Horretarako, taula horren behatzeko itemak sortzeko marko teorikoan aztertutakoa hartu da oinarritzat. Honen bidez, Lehen Hezkuntzan ikastetxe tradizional bat eredu bezala hartuta, bertan, eskola-patioari ematen zaion garrantzia nolako den aztertu da. Horrenbestez, taula lau azpigarri desberdinetan banatuta dago eta bakoitzean aztertzeko item desberdinak planteatu dira. Lehenengoan, umeen arteko harremanak nolakoak diren aztertu nahi izan da (neska eta mutilen arteko hartu-emanak, jolas kooperatiboen praktika, isolatze-arazoak ematen diren, neska eta mutilen rola...). Bigarren, eskola patioan sortu daitezkeen gatazkak ea hauen konponbidea nolakoak eta non suertatzen den behatu da. Hirugarren, umeei espazioarekin duten erlazioa aztertu da, hala nola, espazioaren banaketa eta erabilera. Eta laugarren, umeei eskura duten materialarekin duten harremana ikertu da.

4.3. Prozedura

Behaketa burutu baino lehen, ikastetxeko zuzendaritza taldearekin batzar bat egin da ikerketa lanaren helburua azaltzeko eta baimena eskatzeko. Bertan ere, ikastetxe osoko irakasle taldeari behaketaren prozedura azaldu zitzaizkien haiek jakinaren gainean egoteko.

Kasu honetan, umeen argazkiak eta datu espezifikoak erabiltzen ez direnez ez da beharrezkoa izan baimen orririk eskatzea.

Horren ostean, aste oso batean zehar ikastetxe horretako jolastokiak aztertu dira aurretik aipatutako behaketa-taula erabiliz.

Ondoren, taula beteta, jasotako datuen azterketa burutu da. Horretarako, behaketa-taulatik jasotako informazioa kualitatiboki aztertu da. Horren bidez, hurrengo atalean azaltzen diren emaitzak lortu dira.

5. Emaitzak

Hasteko, garrantzitsua izango da eskolako patioaren egitura azaltzea, ondoren, adierazten diren emaitzak esanguratsuak izateko. Hain zuzen ere, aurretik aipatutako behaketa-taulak 5 gune desberdinak aztertzeko erabili dira. Hots, eskola honetan Lehen Hezkuntzako 1.mailatik 6.mailara gune desberdinak erabiltzeko aukera daukate, argazki honetan ikusten den bezala.



Hortaz, patioaren ezaugarriak eta bertan ematen diren hartu-emanak 5 gunetan aztertu dira:

- LH 1 eta 2 mailerako futbol zelaia eta saskibaloia zelaia (eremu berdinetan aurkitzen direnak)
- LH 1 eta 2 mailerako berdeguneak eta bazterrak
- LH 3,4,5 eta 6 mailerako bazterrak
- LH 3,4,5 eta 6 mailerako futbol zelaia eta saskibaloia zelaia (eremu berdinetan aurkitzen direnak)
- LH 3,4,5 eta 6 mailerako futbol zelaia

Gune horiek kontuan hartuta jarraian, jasotako datuak azalduko dira. Datu horien azalpena emateko aurretik aipatutako taularen 4 gaiei buruz jasotako emaitzak jarraituko dira: umeen arteko harremanak, eskolako patioan sortzen diren gatazkak, umeek espazioarekin duten erlazioa eta umeek materialekin duten harremana.

5.1. Umeen arteko harremanak

Hasteko, gai honetako lehenengo galderan neska eta mutilen artean ematen diren harremanak aztertu dira. Aipatu beharra dago LH-ko 1. eta 2. mailatarako futbol eta saskibaloia zelaian 5 egunetatik 3 neska eta mutilen arteko hartu emanak egon direla. Aldiz, gainerako bi egunetan neskek soka saltoan egon dira jolasten eta mutilak futboleant. LH-ko 1. eta 2. mailatarako berdegune eta bazterretan ordea, egun guztietan neska eta mutilen arteko harremanak eman dira. LH-ko 3,4,5 eta 6. mailatarako bazterretan, futbol eta saskibaloia zelaian neska eta mutilen artean ez dira haien artean hartu emanak egon. Horrekin batera, maila horietako futbol zelaian 5 egunetatik batean bakarrik neska bat egon da futboleant jolasten.

Bigarren galderari erreparatuz, ikusi daiteke jolastoki honetan ez direla jolas kooperatiboak ematen. Hala ere, aipatzekoa da LH-ko 3,4,5 eta 6. mailatarako bazterretan eta berdegunetan mutil batzuk tazoetara jolasten egon direla.

Hirugarren galderan isolatze arazoak aztertu dira, baina ez dira horrelako egoerak ikusi eremu batean ere ez.

Gai honetako azkeneko galderan, neskek eta mutilek betetzen dituzten rola ikertu dira. Horren arabera, eremu gehienetan neskek eta mutilek rol berdina bete dituzte.

5.2. Eskolako patioan sortzen diren gatazkak

Eskolako patioan sortzen diren gatazkei dagokionez, aipatu beharra dago ez direla gatazkak eman; behatutako egunetan antzeman den gatazka bakarra LH 3,4,5 eta 6. mailatarako futbol eta saskibaloia zelaian izan da, bi nesken artean. Gatazka honen arazoia, bi neska horien arteko desadostasuna izan da jolasterako orduan.

Honekin jarraituz, behatutako egunetan ez dira kooperazio arazoak antzeman neska eta mutilen artean.

Gatazkak ohikoak ez izan arren, eman den egun bakarrean arazoa patioan momentuan bertan konpondu dela aipatu beharra dago; irakaslearen laguntzarekin bigarren plano batean egonda.

5.3. Umeek espazioarekin duten erlazioa

Hurrengo gai honetan, espazioaren banaketa aztertuko da. Hala nola, gune bakoitzaren espazioa zelan banatzen den; gune horretako espazio guztiak erabiltzen diren; neska eta mutilek espazio berak erabiltzen dituzten; umeak dauden espazioetara egokitzen diren eta espazio horiek zertarako erabiltzen diren aztertutako da.

Lehenengo azpigiari dagokionez, LH 1 eta 2 mailetarako futbol eta saskibaloia zelaietan, bi ate, hiru saski eta harmailak daude. Hala ere, aipatu beharra dago futbola eta saskibaloia burutzeko zelai bakarra dagoela, hau da, umeak bi kirolak lantzean nahastu egiten dira. Gauza bera gertatzen da LH 3,4,5 eta 6. mailako zelaietan. Maila guztietako futbol eta saskibaloia zelaietan inguruan berdeguneak eta bazterrak aurkitzen dira (aurreko argazkian ikusi daitekeen bezala). Hau da, zelaiak espazioaren erdian kokatzen dira eta gune hauek inguruan. LH 3,4,5 eta 6. Mailetarako futbol zelaiak maila honetarako beste espazio oso bat osatzen du. Hau da, futbol zelaiak espazioaren erdian kokatzen da bertan bi ate eta harmailak daude.

Bigarren azpigiari erreferentzia eginez, egunero espazio bakoitzeko eremu guztiak erabiltzen direla aipatzea ezinbestekoa da. Hala ere, LH 1 eta 2 mailetarako futbol eta saskibaloia zelaietan harmailak erabiltzea debekatuta dago oso aldapatsuak direlako.

Hirugarren azpigiaria kontuan hartuz, LH 1, 2, 3,4, 5 eta 6 mailetarako futbol eta saskibaloia zelaietan eta LH 1 eta 2 mailetarako berdegune eta bazterretan neska eta mutilek espazio berak erabiltzen dituzte. Aldiz, LH 3,4,5 eta 6 mailetarako bazterrak behatutako egun guztietan neskek erabili dituzte, ordea, mutilek behin bakarrik. Horrekin batera, LH 3,4,5 eta 6 mailetarako futbol zelaiak oso neska gutxi erabili dute (egunero bik edo hiruk), hau da, mutilek dira espazio hau erabili dutenak, behatutako egunetan.

Laugarren azpigiarian, aipatu beharra dago orokorrean, neskek eta mutilek dauden espazioetara egokitzen direla. Hau da, neskek eta mutilek espazio zein gune guztiak erabiltzen dituzte jolastordu guztietan, generoa edozein izanda ere. Hala eta guztiz ere, salbuespen bat azpimarratu daiteke, hots, LH 3,4,5 eta 6 mailetarako futbol zelaietan neskek ez dira dagoen espaziora egokitzen; espazio hau ekiditen dutelako.

Azken azpigiarian, aurretik azaldu den bezala, gune bakoitzean burutzen den jolas mota eta bertan erabiltzen den materiala aztertu da. Hortaz, LH 1 eta 2 mailetarako futbol eta saskibaloia zelaietan futbola, saskibaloia, eskubaloia eta soka saltoa egiten da. Horretaz

aparte, musika ere erabili da. Hau da, umeek bozgorailu batzuekin musika entzuten ere ibili dela, baina, azpimarratu beharra dago, soilik, behaketaren azkeneko egunean ikusi dela egoera hori. Bertan, gehien bat, mutilek futbolera jolasten dute, baina, horretaz gain, neskak zelaiaren erdian saskibaloira jolasten eta soka saltoan ibili dira. Bestetik, aipatu beharra dago, gune honetan, neska eta mutilek haien artean jolasten direla. Horrekin jarraituz, LH 1 eta 2 mailetarako berdegune eta bazterrei dagokionez, espazioa korrika egiteko, hitz egiteko eta lasai egoteko erabili da. Eta horrekin batera, LH 3,4,5 eta 6 mailetarako bazterrak, etxeko lanak egiteko, hitz egiteko eta tazoetara jolasteko erabili dira. Bestalde, LH 3,4,5 eta 6 mailetarako futbol eta saskibaloiz zelaia kirolak burutzeko erabiltzen dituzte; esaterako, saskibaloia, futbola, eskubaloia, eta abar. Azkenik, LH 3,4,5 eta 6 mailetarako futbol zelaia futbola praktikatzeko erabiltzen da.

5.4. Umeek materialarekin duten erlazioa

Atal honetan, umeek materialekin duten erlazioa aztertuko da. Hau da, eskuragarri dituzten materialak eta horien erabilpena ikertuko da.

Aipatu beharra dago umeek jolastokira eramateko, adina edozein izanda ere, ez daukatela material desberdina eskuragarri. Hau da, gela bakoitzak futboleko baloi bat, saskibaloiko beste bat eta soka bat daukate gelan. Hortaz, behatutako egun horietan ikusi da, gune desberdinetan material guztiak erabili direla, egunero.

Hala ere, azpimarratzekoa da, materialen eskaintza eskasa izanda ere, material guztiak partekatzen direla eta ez dela umeen arteko arazorik antzeman.

Emaitza horiek guztiak hurrengo tauletan jasotzen dira:

- 1 eta 2 mailatarako futbol zelaia eta saskibaloia zelaia

UMEEN ARTEKO HARREMANAK	DATUAK														
Neska eta mutilen arteko hartu-emanak ematen dira?	Neskak					Mutilak					Neska-mutilak				
	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez, neskek soka saltoan eta mutilak futboleant.	Ez, neskek soka saltoan eta mutilak futboleant.	Bai
Jolas kooperatiboak ematen dira?	Ez. 5 egunetik batean ere ez.														
Isolatze arazoak daude?	Ez														
Ze rol betetzen dituzte neskek eta mutilek?	Neskak					Mutilak									
	Bigarren maila					Lehenengo mailako rola, futbol zelaia erdigunean dagoelako									
SORTZEN DIREN GATAZKAK	DATUAK														
Zer nolako gatazkak ematen dira? (Neska eta mutilen arteko gatazkak)	Generoa					Kopurua (zenbaten artean)					Arrazoiak (jolas arauak, lider desberdinak...)				

nabarmenak dira?)	Ez dira gatazkak eman.		
Kooperazio arazoak daude?	Neskak	Mutilak	Biak
	Ez	Ez	Ez
Noiz ematen dira gatazkak?	Ez dira eman		
Ematen diren gatazkak konpontzen dira?	Gelan (ez dugu behatuko).	Patioan (zelan?)	
	_____	_____	
ESPAZIOAREKIN DUTEN ERLAZIOA	DATUAK		
Nola banatzen da espazioa?	Zelai honetan, hainbat eratan banatzen da espazioa. Honetan, harmailak ditugu futbol zelaiaren albo batean. Bestetik, futboleko zelaia daukagu, honek bi ate ditu. Hortaz aparte, saskibaloiz zelaia dago eta honetan bi saski daude.		
Patioko espazio guztiak erabiltzen dira?	Ez. Harmailak ez dira erabiltzen irakasleek debekatzen dutelako, oso aldapatsuak baitira.		
Neska eta mutilek espazio berak erabiltzen dituzte?	Neskak	Mutilak	
	Bai	Bai	

Ze espazio dira gehien erabiltzen direnak?	Futboleko atea eta saskibaloiko saskiak.
Dauden espazioetara egokitzen dira?	Bai.
Zertarako erabiltzen dituzte eraikitako espazio horiek? Ze jolas mota ematen dira?	Futbola, saskibaloia, eskubaloia eta soka saltoa. Musika bakarrik behaketaren azkeneko egunean erabili da. Eraikitako espazio horiek, jolasak egiteko erabiltzen dute. Gehien bat ikusten dira umeak futbolera jolasten, baina baita ere ikus dezakegu zelaiaren erdia neskak saskibaloira jolasten eta sokara salto egiten. Bestetik ere, aipatu beharra dago guztiok guztiekin jolasten dutela.
MATERIALEKIN DUTEN ERLAZIOA	DATUAK
Ze motatako materialak dute eskuragarri?	
Material guztiak erabiltzen dira?	Baloiak eta sokak
Material horiek hezkidetza bultzaten dute?	Ez.
Materialak partekatzen dira?	Bai.

- LH 1 eta 2 mailetarako berdeguneak eta bazterrak

UMEEN ARTEKO HARREMANAK	DATUAK		
Neska eta mutilen arteko hartu-emanak ematen dira?	Neskak	Mutilak	Neska-mutilak
	Bai	bai	Bai.
Jolas kooperatiboak ematen dira?	Ez dira jolas kooperatiboak ematen.		
Isolatze arazoak daude?	Ez dira isolatze arazoak ematen.		
Ze rol betetzen dituzte neskek eta mutilek?	Neskak	Mutilak	
	Adin honetan ez da argi ikusten ze nolako rol betetzen duten baina zeozer esan baldin badut bigarren mailakoa izango litzateke.	Lehenengo mailako rola erabiltzen dute. Espazio zabalagoak erabiltzen dutelako.	
SORTZEN DIREN GATAZKAK	DATUAK		
Zer nolako gatazkak ematen dira? (Neska eta mutilen arteko gatazkak nabarmenak dira.)	Generoa	Kopurua (zenbaten artean)	Arrazoia (jolas arauak, lider desberdinak...)
	Ez dira gatazkak eman	Ez dira gatazkak eman	Ez dira gatazkak eman
Kooperazio arazoak daude?	Neskak	Mutilak	Biak
	Ez	Ez	Ez

Noiz ematen dira gatazkak?	Ez dira gatazkak ikusi	
Ematen diren gatazkak konpontzen dira?	Gelan (ez dugu behatuko).	Patioan (zelan?)
ESPAZIOAREKIN DUTEN ERLAZIOA	DATUAK	
Nola banatzen da espazioa?	Espazioa ez dago banatuta, berdeguneak eta bazterrak erabili ditzakete nahi duten moduan.	
Eremu honetako espazio guztiak erabiltzen dira?	Berdeguneko espazio asko ez da erabiltzen baina bazterrak bai.	
Neska eta mutilek espazio berak erabiltzen dituzte?	Neskak	Mutirik
	Bai	Bai
Ze espazio dira gehien erabiltzen direnak?	Bazterrak.	
Dauden espazioetara egokitzen dira?	bai	
Zertarako erabiltzen dituzte eraikitako espazio horiek? Ze jolas mota ematen dira?	Korrika egiteko, hitz egiteko eta lasai egoteko.	
MATERIALEKIN DUTEN ERLAZIOA	DATUAK	
Ze motatako materialak dute eskuragarri?	Sokak.	
Material guztiak erabiltzen dira?	_____	

Material horiek hezkidetza bultzaten dute?	Ez, neskek bakarrik erabiltzen dutelako
Materialak partekatzen dira?	Bai.

- LH 3,4,5 eta 6 mailetarako bazterrak

UMEEN ARTEKO HARREMANAK	DATUAK											
Neska eta mutilen arteko hartu-emanak ematen dira?	Neskak					Mutilak					Neska-mutilak	
	Ez dira neskak egon	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez dira mutilak egon	Ez dira mutilak egon	Ez dira mutilak egon	Ez dira mutilak egon	Ez dira haien artean hartu emanak egon bazterretan.	
Jolas kooperatiboak ematen dira?	Bai. Tazoetara jolasten, mutilen artean. Nesken artean ez dira jolas kooperatiboak eman.											
Isolatze arazoak daude?	Ez											
Ze rol betetzen dituzte neskek eta mutilek?	Neskak						Mutilak					
	Neskek eta mutilek rol berdina						Neskek eta mutilek rol berdina					
SORTZEN DIREN GATAZKAK	DATUAK											

Zer nolako gatazkak ematen dira? (Neska eta mutilen arteko gatazkak nabarmenak dira.)	Generoa	Kopurua (zenbaten artean)	Arrazoa (jolas arauak, lider desberdinak...)
	Ez dira eman.		
Kooperazio arazoak daude?	Neskak	Mutilak	Biak
	Ez dira eman	Ez dira eman	Ez dira eman
Noiz ematen dira gatazkak?	Ez dira eman		
Ematen diren gatazkak konpontzen dira?	Gelan (ez dugu behatuko).	Patioan (zelan?)	
	Ez dira eman	Ez dira eman	
ESPAZIOAREKIN DUTEN ERLAZIOA	DATUAK		
Nola banatzen da espazioa?	Futbol zelaia erdian dago eta bazterrak zelaiaren inguruan		
Patioko espazio guztiak erabiltzen dira?			
Neska eta mutilek espazio berak erabiltzen dituzte?	Neskak	Mutilak	
	Neskak bazterrak erabili egun guztietan.	Mutilek bakarrik behin.	

Ze espazio dira gehien erabiltzen direnak?	_____
Dauden espazioetara egokitzen dira?	Bai
Zertarako erabiltzen dituzte eraikitako espazio horiek? Ze jolas mota ematen dira?	Etxeko lanak egiteko, hitz egiteko eta tazoetara jolasteko.
MATERIALEKIN DUTEN ERLAZIOA	DATUAK
Ze motatako materialak dute eskuragarri?	Ez dituzte.
Material guztiak erabiltzen dira?	_____
Material horiek hezkidetza bultzaten dute?	_____
Materialak partekatzen dira?	_____

- LH 3,4,5 eta 6 mailetarako futbol zelaia eta saskibaloia zelaia

UMEEN ARTEKO HARREMANAK	DATUAK		
Neska eta mutilen arteko hartu-emanak ematen dira?	Neskak	Mutilak	Neska-mutilak
	Aste honetan zehar egia esanda ez ditut neska eta mutilen arteko hartu eman asko ikusi. Bakarrik ikusi dut neska bakar batek mutilekin saskibaloira jolasten. Besteak, neskekin egon ohi ziren etxeko lanak egiten, marrazten, hitz egiten, dantzatzen etab.	Mutilak mutilekin egon ohi dira. Gehien bat ikusi ditut saskibaloira eta futbolara jolasten.	Ez dira hartu emanak ematen.
Jolas kooperatiboak ematen dira?	Ez dira jolas kooperatiboak ematen.		
Isolatze arazoak daude?	Ez dira isolatze arazoak ematen.		
Ze rol betetzen dituzte neskek eta mutilek?	Neskak	Mutilak	
	Neskak bigarren mailako rola betetzen dute, hau da, bazterretan egon ohi ziren.	Mutilak lehehengo mailako rola betetzen zuten. Neskak baino espazio zabalagoak erabiltzen zuten.	
SORTZEN DIREN GATAZKAK	DATUAK		
Zer nolako gatazkak ematen dira? (Neska eta mutilen arteko gatazkak)	Generoa	Kopurua (zenbaten artean)	Arrazoia (jolas arauak, lider desberdinak...)

nabarmenak dira.)	<ul style="list-style-type: none"> Nesken artean. 	<ul style="list-style-type: none"> Bi nesken artean. 	<ul style="list-style-type: none"> Jolasten zeuden bitartean neska bat besteari oihukatzen asi zen eta bestea negarrez bazter batera joan zen eta bertan eseri zen.
Kooperazio arazoak daude?	Neskak	Mutilak	Biak
	ez	ez	ez
Noiz ematen dira gatazkak?	Gehienbat gatazkak jolasean daudenean ematen dira.		
Ematen diren gatazkak konpontzen dira?	Gelan (ez dugu behatuko).	Patioan (zelan?)	
		Behatutako arazoa patioan konpondu egin zen. Irakasleak hori ikusitakoan bie deitu zien eta zer gertatu zen galdetu zien. Bakoitzak bere bertsioa bota zuen eta irakaslea arazoa konpondu behar zutela aipatu zien. Hori egin eta gero biak hitzegin zuten eta arazoa konpondu zuten.	
ESPAZIOAREKIN DUTEN ERLAZIOA	DATUAK		
Nola banatzen da espazioa?	Zelai honetan, hainbat eratan banatzen da espazioa. Honetan, harmailak ditugu futbol zelaiaren albo batean. Bertan, ume asko egon ohi dira haien etxeko lanak egiten, bozgorailuarekin musika jartzen, hitzegiten, etab. Bestetik, futboleko zelaia daukagu baina futboleko zelaian ere saskibalo zelaia dago.		
Eremu honetako espazio guztiak erabiltzen dira?	Egia esanda, eremu honetan espazio guztia erabiltzen zen. Hiru talde egon ohi ziren jolasten. Talde bat zelaiaren porteria bat edo saskia okupatzen zuen, beste talde bat bestea eta gero bazegoen hirugarren talde bat zelaiaren erdiko partea erabiltzen zuena.		
Neska eta mutilek espazio berak	Neskak	Mutilak	

erabiltzen dituzte?	bai	bai
Ze espazio dira gehien erabiltzen direnak?	Zelaiak dira gehien erabiltzen diren espazioak. Bestetik ere, esan dezakegu harmailak ere asko erabiltzen direla.	
Dauden espazioetara egokitzen dira?	Bai	
Zertarako erabiltzen dituzte eraikitako espazio horiek? Ze jolas mota ematen dira?	Eraikitako espazioak egia esanda kirolak egiteko erabiltzen dute. Adibidez, saskibaloia, futbola, eskubaloia, etab.	
MATERIALEKIN DUTEN ERLAZIOA	DATUAK	
Ze motatako materialak dute eskuragarri?	Zelai honetan, eskubaloia, saskibaloia, futboleko baloia, musika, teniseko pilotak, etab dituzte eskuragarri.	
Material guztiak erabiltzen dira?	Bai. Aste oso batean zehar behatu ostean argi eta garbi ikusi nuen nola kirol ezberdinak lantzen zituztela eta bertan aipatutako material guztia erabiltzen zutela.	
Material horiek hezkidetza bultzatzen dute?	Ez dut uste erabilitako materiala hezkidetza bultzatzen duenik. Hau da, gehienbat kirolean oinarritutako materialak izan ohi dira eta horiek lehia bultzatzen duela esango nuke. Egia esanda, bakarrik ikusi nuen egun batean bozgarailuarekin genero desberdinetako ume asko dantza egiten. Hezkidetza bultzatzen duen material bat esango banu bozgorailua izango zela aipatuko nuke.	
Materialak partekatzen dira?	Bai, horretarako ez dago arazorik.	

- LH 3,4,5 eta 6 mailatarako futbol zelaia

UMEEN ARTEKO HARREMANAK	DATUAK		
Neska eta mutilen arteko hartu-emanak ematen dira?	Neskak	Mutilak	Neska-mutilak
	Neskak harmailetan hitz egiten ikusi ditut eta baita ere marrazkiak eta etxeko lanak egiten. Hau da, ez dira mutilekin hartu emanak ematen.	Mutilak espazio osoa erabiltzen dute, hau da, futboleko zelaia osoa erabiltzen dute jolasteko.	Neska eta mutilen artean ez da hartu-eman askorik ematen. 5 egunetik 1ean neska bat egon da futbolean jolasten.
Jolas kooperatiboak ematen dira?	Ez dira jolas kooperatiboak ematen .		
Isolatze arazoak daude?	Ez ditut isolatze arazoak ikusi.		
Ze rol betetzen dituzte neskek eta mutilek?	Neskak	Mutilak	
	Neskak, bigarren mailako rola izaten dute, hau da, espazio txikiagoak erabiltzen dituzte.	Mutilek lehenengo mailako rola betetzen dute, hau da, ezer esan gabe patiora ateratzen direnean espazio osoa hartzen dute eta inor ez die ezer esaten.	
SORTZEN DIREN GATAZKAK	DATUAK		
Zer nolako gatazkak ematen dira? (Neska eta mutilen arteko gatazkak nabarmenak dira?)	Generoa	Kopurua (zenbaten artean)	Arrazoia (jolas arauak, lider desberdinak...)
	Ez dira eman		
Kooperazio arazoak daude?	Neskak	Mutilak	Biak

	ez	ez	Ez
Noiz ematen dira gatazkak?			
Ematen diren gatazkak konpontzen dira?	Gelan (ez dugu behatuko).	Patioan (zelan?)	
		BAI. Irakaslearen laguntzaz.	
ESPAZIOAREKIN DUTEN ERLAZIOA	DATUAK		
Nola banatzen da espazioa?	Futbol zelaia eremuaren erdian. Bi ate eta harmailak daude.		
Eremuko espazio guztiak erabiltzen dira?	Bai		
Neska eta mutilek espazio berak erabiltzen dituzte?	Neskak	Mutilak	
	Oso neska gutxik erabili dute futbol zelaia. Egunero 2-3.	Mutilak dira espazio hau erabiltzen dutenak.	
Ze espazio dira gehien erabiltzen direnak?	_____		
Dauden espazioetara egokitzen dira?	Neskak ez.		
Zertarako erabiltzen dituzte eraikitako espazio horiek? Ze jolas mota ematen dira?	Futbolera jolasteko.		
MATERIALEKIN DUTEN ERLAZIOA	DATUAK		
Ze motatako materialak dute eskuragarri?	Baloia.		

Material guztiak erabiltzen dira?	_____
Material horiek hezkidetza bultzaten dute?	Ez.
Materialak partekatzen dira?	Bai.

6. Ondorioak

Ikerketa lan honen emaitzei erreparatuz, ondorio nagusi bezala esan dezakegu, eskola honetako jolastokian ez dela umeen arteko harreman orekatua ematen eta ez zaiola momentu honi beharrezko garrantzia ematen.

Hots, espazioaren erabilera aztertzen badugu, aipatu beharra dago bi zikloko mutilek neskek baino espazio zabalagoa hartu dutela eta hauek izan dira zelaiaren erdiko guneak erabili dituztenak. Nesken kasuan ez da halakorik gertatu, eta hauek zelaitik aldenduago edo erdigunetik kanpo gelditu dira. Ideia horien aurka, Geertzek (1992); Martínezek eta Garcíak (1997); Cantók eta Ruizek (2005) eta Rodríguezek, Retortillok eta Garcíak (2007) aipatzen duten moduan, helduaren parte hartzeak garrantzi handia du, izan ere, hauek parte hartzen ez badute mutilek espazio handiagoak edo zabalagoak erabiliko dituzte; alegia, kirolekin zerikusia duten jolasak egiteko. Autore hauen iritziak zuzenean islatu dute behatutako egoera. Hau da, mutilek jolastokiaren zati handiena hartzen dute haien baitan.

Horrekin batera, udaletxeko Berdintasun Sailak (2005) adierazten duen moduan, neska eta mutilen arteko desberdintasunak nabariak dira. Autore honen arabera, espazio bakoitzean egiten diren jolasak edo aktibitateak, ez dira berdin baloratzen. Mutilen kasuan, sozialki baloratuak dauden ekintzetan parte hartzen dute (adibidez saskibaloian, futboleak, zehazki). Neskek, ordea, jolastokiko leku desberdinetan ematen dute, hau da, sozialki hain baloratuak ez dauden ekintzetan, hain zuzen ere, denbora-pasa edo entretenimenduan (soka-saltoan, dantzan, hitz egiten...). Horren arabera, ideia horiekin bat eginez, emaitzetan agertu den moduan, neskek harmailetan edo bazterretan hitz egiten, dantzatzen, etab. egon ohi dira eta, ordea, mutilak kirolean.

Idea hori kontuan hartzen badugu, Alvarezek (2013) esaten duen moduan, jolaserako espazioa egokiak eta seguruak izan behar dira, eta ikasleei aktiboak izatera lagundu behar dute. Ideia hau emaitzekin alderatzen, ikusi daiteke LH 1 eta 2. mailako futbol eta saskibaloizelaian espazioak ez direla umeentzako seguruak, hau da, harmailak ez daude erabilgarri aldapatsuak eta arriskutsuak direlako. Beraz, eskola honetako jolastokiak ez du Alvarezen (2013) baldintzak betetzen, hortaz horrek eragina izango du umeen jokabideetan.

Hots, Alvarezek (2013) eta Pinok eta Gimenezek (2015) azpimarratzen duten moduan, haurrei jolastorduan zer egitea gustatzen zaien ikertzea eta haien interesetara moldatzea

beharrezkoa da. Kasu honetan, ikusi daiteke irakasleak zein zuzendaritza taldeak ez direla patioaren egoera aztertzeko elkartu. Hau da, ez dira umeentzako jarduerak proposatu. Horregatik, beti ikusten ditugu haurrak futbola edo saskibaloia praktikatzen, eta neskek, berriz, soka-saltoan edo espazio horietako izkinetan hitz egiten, etxeko lanak egiten edo denbora pasatzen. Egia da patioako lerroak, saskiak eta atek kirol horien garapena bultzatzen dutela. Hala ere, irakasleek espazio berak erabiliko balituzte kirolak ez diren beste jarduera batzuk egiteko, ikusiko genuke haurrak elkarrekin egongo liratekeela eta haien arteko harremanak hobetu egingo liratekeela. Horrela, haur guztiak espazio berak erabiliko lituzkete eta inor ez genuke ikusiko izkinetan. Horregatik garrantzitsua da irakasleek zeregin aktiboa izatea haurrak patioan daudenean.

Ildo beretik, Alvarezek (2013) justifikatzen du, funtsezkoa dela espazioak irekitzea ikasleei entzuteko eta irakaslea bere hezkuntza-errealitatearen ikertzaile bihurtzeko.

Are gehiago, jarrera sozialak sustatzen dira, hala nola hezkidetzak, lankidetzak, erantzukizuna, autonomia, taldeko gatazkak konpontzea eta materiala errespetatzea eskatzen duten jardueren bidez (Pino eta Gimenez, 2015). Behatutako egoera honetan, haurren interesak kontuan hartzen ez direnez eta bakoitzak nahi duenarekin jolasteko materialik edo jolasik eskaintzen ez zaienez, ez dira gauza hauek lantzen.

Aurrekoarekin bat eginez, Alvarezek (2013) aipatzen duenez, beharrezkoa da hurreko jolas-orduan gozatzeko egokiak diren espazio fisikoak (azpiegiturakoak) izateaz gain, eskola-umeek gustuko dituzten jarduerak egiteko materialak eta jolasak izatea; esate baterako, motrizitate lodia eta mugimendua garatzeko materialak. Aurretik, emaitzetan aipatu den moduan, hurreko baloi eta soka bakarrik dute eskura gela bakoitzeko, hortaz futbolera eta soka saltora jolastera mugatzen da. Hori dela eta, ezinbestekoa da materialak anitzak, manipulatioak eta neutroak izatea. Horrela, haur bakoitzak nahi duenean jokatu ahal izango du, dituen materialen menpe egon gabe. Adibidez kutxa bat ume bakoitzarentzat objektu desberdinetan bilakatu daiteke ume horiek ematen dioten sinbologiaren arabera (jolas sinbolikoa), aldiz, futboleko baloi bat futbolera jolastera mugatuko dute.

Hori guztia kontuan hartuta irakasleen jarrera kontuan hartzea ezinbestekoa da. Behatutako aste osoan zehar, nabaritu da umeak araurik ez balego bezala jokatzeko dutela. Honekin batera, nahiz eta gatazkarik eman ez diren, ez dira aldaketarik nabarmendu egun batetik bestera beraien pasibotasunagatik. Hau da, agente pasiboak

bezala jardun dute espazioaren kudeaketaren aurrean, inolako interbentziorik egin gabe, alabaina. Horrekin bat eginez, Alvarezek (2013) dioenez, irakasleek jolas-orduak gainbegiratu eta zaindu behar dituzte. Horren arabera, autore honek irakasleak ikasleengana gehiago hurbiltzea, haiekin denbora partekatzea, gozatzea eta jolastea gomendatzen du.

Pinok eta Gimenezek (2015) aipatzen duten moduan, jolastorduak umearen garapen integrala bere osotasunean ahalbidetzen du; izan ere, ez ditu soilik mugimendua eta jarduera fisikoa barne hartzen, baizik eta subjektua gainerako kideekin harremanetan jartzen du bere sozializazioa bultzatzen. Hori dela eta, jolastorduak neska eta mutilen arteko elkarrekintza bultzatuko du era negatiboan edo positiboan, espazioaren antolakuntzaren arabera. Horregatik garrantzitsua izango litzateke neska eta mutilen artean beste jarduera batzuk sustatzea haien arteko elkar emana emateko. Behaketan ikusi den bezala, 5 egunetatik ez dira neska eta mutilen elkar eman asko sustatu, hau da, mutilak mutilekin egon dira eta neskak neskekin.

7. Hobekuntza proposamena

Patioa ikasleek benetan nola jokutzen duten ikusteko ikastetxeko espazio bakarra da. Bertan, umeek askatasun handiena dute, eta bere kideekin erlazionatzen dira, bere nortasuna eta gustuak azalduz. Beraz, informazio interesgarria lortzeaz gain, gatazka-eta ikaskuntza-iturri ere bada, eta aprobetxatu egin behar da.

Arazoak konponduko dituen patio-proiektu bat sartu behar da ikastetxeetan, bizikidetzeta hobetzeko, inklusioa hezkuntza premia bereziak dituzten umeentzako, patioen antolaketa hobetzeko eta aisialdirako, ikaskuntza eta entretenimendurako baliabide gehiago eskaintzea helburua duena.

Ondorio guztiak aintzat hartuta, aberasgarria da jolastokiaren egiturari aldaketa bat ematea. Horrenbestez, jarraian proposamen bat luzatuko da jolastokiaren espazioa, materiala eta umeen arteko harremanak hobetzeko helburuarekin. Hain zuzen ere, ikerketa lan honen emaitzetan ikusi den bezala, ez da elkarreragin handirik ematen neska eta mutilen artean. Horrekin bat eginez, Eusko Jaurlaritzako II. Hezkidetzeta Planean ikastetxeetan hezkidetzeta bultzatzeko ezinbestekoak diren irizpide desberdinak adierazten dira; eta horien artean, aurretik aipatu den bezala, eskolako patioeko egituraren aldaketa zehazten da. Hortaz, eskola honen egoera aztertuta, hezkidetzeta bultzatzeko irizpide hori aurrera eramatea beharrezkoa ikusten da. Horretaz gain,

ikastetxearen ingurune naturala behatzen badugu, landa-eremu batean kokatuta dagoela ikusi daiteke; beraz, kokapen hori kontuan hartuta, materialen eta egituren aldaketa planteatu nahi da, naturari garrantzia emanez. Hots, ingurune naturalarekin bat eginez, material ez-estereotipatua proposatuko da neska zein mutilen arteko harreman orekatua bultzatzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, jolastokiaren espazioa aldatzeko, egituraren erreforma bat egitea beharrezkoa da. Hau da, egitura guztiak birrantolatzea aberasgarria izango litzateke, jolastokia esanguratsua bilakatzeko Hain zuzen ere, Bruchner-ek (2017) “Bosquescuola” liburuan adierazten duenez, naturak eragin positiboak izaten ditu umearen garapenean (garapen kognitiboan, sozialean, eta fisikoan), inguruarekiko harremanetan eta ingurugiroaren hobekuntzan. Hau da, eskoletan espazioak irekiak eta balio anitzekoak izatea ezinbestezkoa da. Hortaz, honen egituraren aldaketa burutzeko Bruchnerren (2017) ekarpenetan eta “Tierra en las manos” *web* orrialdean oinarrituta umek naturan murgiltzeko zenbait ideia proposatzen dira. Esate baterako, zurezko egiturak (etxeak, pasabideak, enborrak, esperimentazio-mahaiak...); txirristak, berdegune mota desberdinak...; jarraian, hauek zehatzago azaltzen direnak.

1. Harea eta lurra eskaintzea. Horrelako materialak eskainita umek haien irudimena erabiliz askotariko eraikuntzak sortu ditzakete. Hain zuzen ere, adin desberdinetako umek (Haur eta Lehen Hezkuntzakoek) erabili dezaketen material naturala da. Horren bidez, tunelak, zubiak eta bururatzen zaien guztia sortu dezakete.



I. Irudia: “Tierra en las manos” web orrialdetik hartuta.



2. Irudia: “Tierra en las manos” web orrialdetik hartuta.

2. Ura. Honetan, hurrek ura ponpatzeko erabiltzen dituzten iturriak eta zirkuituak aproposak dira. Izan ere, lan fisikoa egiten dute, eta, aldi berean, uraren erabilerarekin esperimentatzeko aukera daukate.

3. Irudia: “Tierra en las manos” web orrialdetik hartuta.



3. Kanpoko sukaldea. Web orrialdean sukalde bat egitea proposatzen da umeek egunerokotasuneko betebeharrak eta ekintzetan trebatzeko; baina, askotariko egiturak prestatu daitezke, betiere umeen esperimentazio gune bezala proposatuta.




5. Irudia: “Tierra en las manos” web orrialdetik hartuta.

4. Irudia: “Tierra en las manos” web orrialdetik hartuta.

4. Desnibelak. Desnibelak dibertigarriak izateaz gain, motrizitate lodia eta oreka suspertzen eta lantzen laguntzen dute. Oso baliabide merkea izan daiteke. Mendi txiki eta dunek dibertsio-orduak eman ditzakete. Horretaz gain, desnibelak harriekin egin daitezke edo eskaladako paretak ere, baina hori egiteko, segurtasunezko materiala erabiltzea garrantzitsua da. Atal honen barnean ere,

txirristak edota pasabide desberdinak sartu daitezke; haurren jolas libre eta fisikorako eremuak.



6. Irudia: "Tierra en las manos" web orrialdetik hartuta.



7. Irudia: "Tierra en las manos" web orrialdetik hartuta.



8. Irudia: "Tierra en las manos" web orrialdetik hartuta.

5. Landaredia eta baratza. bizitzaren zikloak, landareak eta natura zaintzen laguntzeko egokiak dira. Hauek, eskola orduetan erabiltzeko proposak dira, baina, jolastokian egotea aberasgarria izan daiteke, horien zaintza eta errespetua sustatzeko.



9. Irudia: "Tierra en las manos" web orrialdetik hartuta.

6. Etxeak eta etxolak. Babeslekuek, haurren artean, irudimenezko jolasa eta jolas simbolikoa egitera gonbidatzen dute.



10. Irudia: "Tierra en las manos" web orrialdetik hartuta.

7. Enborreko zirkuituak. Enborreko zirkuituak ezin hobeak dira motrizitatea, koordinazioa, oreka... suspertzeko. Izan ere, hauek esertzeko, egurra sentitzeko... eta haien enborrek espazioak mugatu, eremuak markatu eta abar egin ditzakete.



11. Irudia: “Tierra en las manos” web orrialdetik hartuta.



12. Irudia: “Tierra en las manos” web orrialdetik hartuta.

Jolastokiaren egituraketaz gain, bestelako aldaketan ematea ere garrantzitsua izango da. Hortaz, patiora irteteko korridore nagusian armairu bat edo gela txiki bat egotea beharrezkoa da, hurrek hainbat material eskura izan dezaten. Hau da, armairu bat edo gela txiki bat eraikitzea, haur guztiek nahi duten materiala eskuragarri izateko. Adibidez, mahai-jokoak, kartoizko kutxak, ontziak, tresna desberdinak, etab.

Horretaz gain, umeen iritzia kontuan hartzea oso garrantzitsua da jolastoki esanguratsu bat prestatzerako orduan. Hots, aproposa izango litzateke, Lehen Hezkuntzako pasabidean umeei postontzi bat eskura izatea, bertan, haiek landu nahi dituzten ekintzak, materialak edo eraikuntzak proposatzeko.

Proposamen honekin amaitzeko, irakasleen koebaluazioa eta autoerregulazioa ezinbestekoa da. Hau da, irakasle-bileretan jolastokiaren ebaluazioa burutzea garrantzitsua izango da proposatutako materiala, egiturak eta umeen arteko harremanak egokiak diren ziurtatzeko. Hain zuzen ere, etengabeko moldaketak egitea beharrezkoa izango da. Zeregin honetan, irakasleen iritzia eta esperientziak jasoko dira. Hauek dira ebaluatu beharreko item desberdinen adibideak:

- ✓ Jolastokiko espazio guztiak aprobetxatu dira?
- ✓ Materialak umeen eskura daude?
- ✓ Espazio eta gune desberdinak erabiltzen dira?
- ✓ Neskek zein mutilek espazio berdinak erabiltzen dituzte?

- ✓ Espazioak umeen beharrianak errespetatzen ditu?
- ✓ Materiala estereotipatua da?
- ✓ Umeen arteko harremanak sustatzen dira?
- ✓ Neska eta mutilen artean elkarreragina egoten da?
- ✓ Umeen arteko gatazkak antzematen dira?
- ✓ ...

8. Bibliografía

- Aguilera, E. (2010). ¡Recreo!... ¡Vamos a jugar! Espacios y juegos: Una responsabilidad compartida. In Álvarez, A. L. C. (2013). Una mirada a los recreos escolares: El sentir y pensar de los niños y niñas. Revista electrónica educare, 17(1), 67-87. Hemendik jasoa (2019/12/02an): https://www.scielo.sa.cr/scielo.php?pid=S140942582013000100005&script=sci_arttext
- Álvarez, A. L. C. (2013). Una mirada a los recreos escolares: El sentir y pensar de los niños y niñas. Revista electrónica educare, 17(1), 67-87. Hemendik jasoa (2019/12/02an): https://www.scielo.sa.cr/scielo.php?pid=S140942582013000100005&script=sci_arttext
- Barquín,, A. (2015). Escuela, género e interculturalidad. Hitzaldia. Escuela para la igualdad y el empoderamiento de las mujeres. Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Hemendik jasoa (2019/12/05an): <https://www.youtube.com/watch?v=B9X05n4wIyc>
- Bruchner, P. (2017). Bosquescuela. Guía para la educación infantil al aire libre. Valencia: Ediciones Rodeno (82-90).
- Cantó, R. y Ruiz, L.M. (2005). “Comportamiento motor espontáneo en el patio de recreo escolar. Análisis de las diferencias por género en la ocupación del espacio durante el recreo escolar”. Revista Internacional de Ciencias del Deporte, 1, 28-45. In Navarro, H. & Monge, A. (2009). Asimilación de códigos de género en las actividades del recreo escolar. Revista interuniversitaria de formación del profesorado, 23(1), 59-72. Hemendik jasoa (2019/12/02an): <https://www.redalyc.org/pdf/274/27418821005.pdf>
- Dyment, J. E.; Bell, C. (2008). Grounds for movement: green school grounds as sites for promoting physical activity. Health educ Res, 23 (6): 952-962. In Bruchner, P. (2017). Bosquescuela. Guía para la educación infantil al aire libre. Valencia: Ediciones Rodeno (82-90).
- Estudio ALADINO (2015): estudio de vigilancia del Crecimiento, alimentación, Actividad Física, Desarrollo infantil y Obesidad en España 2015. Agencia Española de Consumo, Seguridad Alimentaria y Nutrición. Ministerio de

- Sanidad, Servicios Sociales e igualdad. Madrid. In Bruchner, P. (2017). Bosquescuela. Guía para la educación infantil al aire libre. Valencia: Ediciones Rodeno (82-90).
- Fjortoft, I. (2000). The natural environment as a playground for children Landscape description and analyses of a natural playscape. Landscape and urban Planning 48 (2000) 83-97. Norway. In Bruchner, P. (2017). Bosquescuela. Guía para la educación infantil al aire libre. Valencia: Ediciones Rodeno (82-90).
- Geertz, C. (1992). La interpretación de las culturas. Barcelona: Gedisa. In Navarro, H. & Monge, A. (2009). Asimilación de códigos de género en las actividades del recreo escolar. Revista interuniversitaria de formación del profesorado, 23(1), 59-72. Hemendik jaso (2019/12/02an): <https://www.redalyc.org/pdf/274/27418821005.pdf>
- Gorges, R. (2000). Waldkindergartenkinder im ersten Schuljahr – eine empirische untersuchung. Eigenverlag. Hohenstein. In Bruchner, P. (2017). Bosquescuela. Guía para la educación infantil al aire libre. Valencia: Ediciones Rodeno (82-90).
- Grahn,P.; Martensson, F.; Lindblad, B.; Nilsson; P. & Ekman, A. (1997). Ute pa dagis. Huranvåder barn daghemsgarden? Utformingen av daghemns-garden och dess betydelse för lek, motorik och koncentrationsförmaga. Stad & Land, 145. Alnarp: Movium, Sveriges Lanbruksuniversitet. In Bruchner, P. (2017). Bosquescuela. Guía para la educación infantil al aire libre. Valencia: Ediciones Rodeno (82-90).
- Häfner, P. (2002). Natur- und Waldkindergärten in Deutschland – eine Alternative zum Regelkindergarten in der vorschulischen Erziehung. Inauguraldissertation, universität Heidelberg. In Bruchner, P. (2017). In Bruchner, P. (2017). Bosquescuela. Guía para la educación infantil al aire libre. Valencia: Ediciones Rodeno (82-90).
- Hernaniko udala (2005). Berdintasunezko jolasa Hezkidetza eta espazioaren inguruko baliabide gida. Gipuzkoa: Hernaniko udaletxeko berdintasun saila. Hemendik jaso (2019/12/02an):

<https://www.hernani.eus/documents/497182/1142197/Berdintasunezko+jolasa.pdf/9f05bd20-fa3e-4174-9185-a490c562cb59>

Herrero, T. (2013). Los patios de recreo: lugares para aprender. Clave XXI. Reflexiones y experiencias en Educación, 10. Hemendik jasoa (2019/12/02an): http://clave21.ieszaframagon.com/files/articulos/I09_Patios.pdf

Hezkuntza saila (2019). EAE-ko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzaren plana, berdintasunaren eta tratamenduen bidean 2019-2023. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Hemendik jasoa (2019/12/02an): http://www.euskadi.eus/web01-a2aznscp/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNNoPortal=true&N_LIBR=052381&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf

Instituto Nacional de Estadística (INE), la Organización Mundial de la Salud (OMS), la Sociedad Española para el Estudio de la Obesidad (SEEDO). Fundación Thao. In Bruchner, P. (2017). *Bosquescuela. Guía para la educación infantil al aire libre*. Valencia: Ediciones Rodeno (82-90).

Jarret, O. & Waite-Stupiansky, S. (2009). Recess—It's Indispensable! [El recreo es imprescindible]. In Álvarez, A. L. C. (2013). Una mirada a los recreos escolares: El sentir y pensar de los niños y niñas. *Revista electrónica educare*, 17(1), 67-87. Hemendik jasoa (2019/12/02an): https://www.scielo.sa.cr/scielo.php?pid=S1409-42582013000100005&script=sci_arttext

Jarret, O. (2002). El recreo en la escuela primaria: ¿Qué indica la investigación? (Recess in Elementary School: What Does the Research Say?). Champaign, IL: Eric Clearinghouse on Elementary and Early Childhood Education.]. In Álvarez, A. L. C. (2013). Una mirada a los recreos escolares: El sentir y pensar de los niños y niñas. *Revista electrónica educare*, 17(1), 67-87. Hemendik jasoa (2019/12/02an): https://www.scielo.sa.cr/scielo.php?pid=S1409-42582013000100005&script=sci_arttext

Kiener, S. (2003). Kindergärten in der Natur – kindergärten in die natur? Fördert das Spielen in der natur die Entwicklung der motorik und Kreativität von

- Kindergartenkindern? Disponible en <https://www.waldkindergarten.ch/downloads/lizenziatsarbeitkindergartenindenatur.pdf>. In Bruchner, P. (2017). *Bosquescuola. Guía para la educación infantil al aire libre*. Valencia: Ediciones Rodeno (82-90).
- Kiener, S. & Stucki, S. (2001). *Evaluation naturspielgruppe Dusse Verusse Zusammenfassung Eltembefragung*. Fondation 19. Disponible en https://dusse-verusse.ch7app_icc/xt_obj_document.asp?.oid=8742&cid=&cmd=FETCH&err=0&. In Bruchner, P. (2017). *Bosquescuola. Guía para la educación infantil al aire libre*. Valencia: Ediciones Rodeno (82-90).
- Lettieri, R. (2004). *Evaluationsberincht des ersten öffentlichen Waldkindergartens der Schweiz*. Zurich. In Bruchner, P. (2017). *Bosquescuola. Guía para la educación infantil al aire libre*. Valencia: Ediciones Rodeno (82-90).
- Martin, C. M. (2003). *The influences of Outdoor Schoolyard Experiences on Students' Environmental Knowledge, Attitudes, Behaviors, and Confort Levels*. *Journal of Elementary Science Education*, vol. 15, No. 2 (Fall 2003). pp 51-63. Western Illinois University. In Bruchner, P. (2017). *Bosquescuola. Guía para la educación infantil al aire libre*. Valencia: Ediciones Rodeno (82-90).
- Martínez, Y.; Álvarez, L. & García, A. (1997). "Educación Física y género: una mirada al cuerpo en la escuela" (pp. 57-68). En T. Alario y C. García (Coords.). *Persona, género y educación*. Salamanca: Amarú. In Navarro, H. & Monge, A. (2009). *Asimilación de códigos de género en las actividades del recreo escolar*. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, 23(1), 59-72. *Hemendik jaso* (2019/12/02an): <https://www.redalyc.org/pdf/274/27418821005.pdf>
- Navarro, H. & Monge, A. (2009). *Asimilación de códigos de género en las actividades del recreo escolar*. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, 23(1), 59-72. *Hemendik jaso* (2019/12/02an): <https://www.redalyc.org/pdf/274/27418821005.pdf>
- O' Brien, E. A. & Murray, M. (2006). *A marvellous opportunity for children to learn. A participatory evaluation of Forest School in England and Wales*. HMSO.

- Norwich. In Bruchner, P. (2017). *Bosquescuela. Guía para la educación infantil al aire libre*. Valencia: Ediciones Rodeno (82-90).
- Pica, R. (d.g.). 7 Reasons why Kids Need Recess [7 razones del porqué los niños necesitan el recreo]. In Álvarez, A. L. C. (2013). *Una mirada a los recreos escolares: El sentir y pensar de los niños y niñas*. *Revista electrónica educare*, 17(1), 67-87. Hemendik jaso (2019/12/02an): https://www.scielo.sa.cr/scielo.php?pid=S1409-42582013000100005&script=sci_arttext
- Pino, P. G., & Giménez, J. P. (2015). El recreo¿ sólo para jugar?. *EmásF: revista digital de educación física*, (36), 18-27.
- Reizabal, L. (2015). *Genero berdintasunean hezteko gida. Familia, irakasle eta bestelako hezitzaileentzat*. Bilbo: UEU.
- Rodríguez, H., Retortillo, A. y García, A. (2007). “Proceso de integración del alumnado inmigrante nuevo: un estudio etnográfico en un colegio vallisoletano”. En María Tejedor Mardomingo y Jesús Alberto Valero Matas (Coords.), *La educación social ante los nuevos retos de la inmigración y los servicios sociales* (pp. 193-206). Valladolid: Universidad de Valladolid. In Navarro, H. & Monge, A. (2009). *Asimilación de códigos de género en las actividades del recreo escolar*. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, 23(1), 59-72. Hemendik jaso (2019/12/02an): <https://www.redalyc.org/pdf/274/27418821005.pdf>
- Stratton, G. (2000). «Promoting children’s physical activity in primary school: An intervention study using playground markings». *Ergonomics*, 43 (10), 1538-1546. In Molins-Pueyo, C. (2012). *Patios escolares y diversidad sociocultural en Cataluña. Una investigación sobre usos y posibilidades para el juego y el aprendizaje*. *Papers: revista de sociologia*, 97(2), 431-460.
- Tierra en las manos (2016). ¿Cómo debería de ser el patio de la escuela?. Hemendik jaso (2020/01/12an): <http://www.tierraenlasmanos.com/reformar-patio-escuela-en-espacio-educativo/>

9. Eranskinak


9.1. Jolastokiak dituen eremu nagusien argazkiak



Askartza Isusi-ko patio osoa goitik ikusita.




Ikastetxeko sarrera



LH1-2 berdeguneak + bazterrak




LH1-2 berdeguneak + bazterrak



LH 3-6 bazterrak



LH 1-2 futbol + Saskibaloi zelaia



LH 3-6 Futbol zelaia



LH 3-6 Futbol + saskibaloi zelaia



Bazterrak

9.2. Behaketa taularen eredia

UMEEN ARTEKO HARREMANAK	DATUAK														
Neska eta mutilen arteko hartu-emanak ematen dira?	Neskak					Mutilak					Neska-mutilak				
Jolas kooperatiboak ematen dira?															
Isolatze arazoak daude?															
Ze rol betetzen dituzte neskek eta mutilek?	Neskak							Mutilak							
SORTZEN DIREN GATAZKAK	DATUAK														
Zer nolako gatazkak ematen dira? (Neska eta mutilen arteko gatazkak nabarmenak dira?)	Generoa					Kopurua (zenbaten artean)					Arrazoiak (jolas arauak, lider desberdinak...)				

Kooperazio arazoak daude?	Neskak	Mutilak	Biak
Noiz ematen dira gatazkak?			
Ematen diren gatazkak konpontzen dira?	Gelan (ez dugu behatuko).	Patioan (zelan?)	
ESPAZIOAREKIN DUTEN ERLAZIOA	DATUAK		
Nola banatzen da espazioa?			
Patioko espazio guztiak erabiltzen dira?			
Neska eta mutilek espazio berak erabiltzen dituzte?	Neskak	Mutilak	
Ze espazio dira gehien			

erabiltzen direnak?	
Dauden espazioetara egokitzen dira?	
Zertarako erabiltzen dituzte eraikitako espazio horiek? Ze jolas mota ematen dira?	
MATERIALEKIN DUTEN ERLAZIOA	DATUAK
Ze motatako materialak dute eskuragarri?	
Material guztiak erabiltzen dira?	
Material horiek hezkidetza bultzaten dute?	
Materialak partekatzen dira?	